

A photograph of four people standing in front of a building entrance. From left to right: a woman with curly hair wearing a floral top and black pants; a woman with straight hair wearing a light blue t-shirt with a green bag graphic and blue jeans; a woman with short hair wearing a white button-down shirt and black pants; and a man with glasses and a beard wearing a light blue t-shirt with a motorcycle graphic and blue jeans. The building behind them has a wooden door and a stone wall.

Nautikoren urrezko ezteiak

Udaleko berriak: bizikleta elektrikoentzako diru-laguntza
Aranzadi: anfibioak eta narrastiak
Ibilbidea: Idiazabal-Gurutzetako ermita-Idiazabal



Zer izango, urte osoa oporrak iristeko zain, eta berehala pasatzeaz gain, ia-ia ahaztuak ditugu eta jadanik ikasturte berrian buru-belarri sartu gara. Asmo eta ilusio berriak errenkadan: kirola egitea, ikas-taroetan izena ematea, hizkuntzak ikastea, kilotox batzuk jaiste, nork ez ote dio bere buruari horrelako promesarik egin... Ez ditzala, bada, udazkeneko hego haizeak berarekin eraman asmo sendoak diruditenak.

Gure herrian ere asmo eta lan berriak puri-purian. Bide gorriak martxa ederra darama, parte hartzeko lan taldeak asmo berriak beterik dabiltza lanean, haurreskolak, eskolak, ludotekak, gaztelekuak, gaztetxeak eta gainerakoek etorkizunaren konkista abiatu dute. Jubilatutako ere indar berriak datoz, eta ez dute amore emateko asmorik. Herri honek ez du adinik, denentzat dago lekua.

Eta zer esan Euskal Herriari buruz. Iazko ikasturtean "Gure esku dago" k erakutsi zuen herritar xumeek dutela herri honen giltza. Udazken honetan, begiak Eskozian eta Katalunian gertatzen denari so ditugu, baina gure bidea gure esku dagoela ahaztu gabe.

Itsasondo 2.0. aldizkariaren 26. alea edukiz mardul beste behin ere, betiko atalez ez dute huts egin: udaleko berriak, udaletxe zaharraren edo Kontzejuaen istorioa, jubilatuek egin dituzten bidaiak eta ekintzak, haurreskolaren eta eskolaren ikasturte berria, gazteenen udako opor bikainak. Itsasondon dugun wifi sarearen inguruko informazio zehatza ere eskaintzen zaigu. Ekainaz geroztik herrian izan diren ekintza, festa eta gainerako saraoen errepasoa ere egiten dugu, ea argazkietan azaltzen direnak ezagutzen dituzuen. Herrian beste data esanguratsu bat, Nautiko tabernaren 50. urteurrena; bertako M^o Milagros Otegiarekin eta Mila Iuzkizarekin egindako elkarrizketan pasadizo ugari kontatu dizkigute. Eta ez ditugu ahaztuko, errejeta, lorezaintza gomendio, ibilaldi eta udazkeneko agenda eta oharrak, besteak beste.

Beste behin ere, zuentzako xumeki eginiko aldizkari honen orrialdeetan barna murgiltzera gonbidatzen zaituztegu.

Ondo izan eta urratsez urrats gure ametsetara bidea abia dezagun. ■



- 03. **Udaleko berriak**
- 04. **Haurreskola**
- 05. **Eskola**
- 06-07. **Gazteria:** Ikasturtea martxan
- 08. **Agenda 21:** Itsasondoko ingurumen eta iraunkortasun diagnostikoa
- 09. **Aranzadi:** Anfibiaok eta narrastiak
- 10-14. **Elkarrizketa:** Nautikok, 50. urteurrena
- 15. **Guraso elkarte / auzolana**
- 16. **Gizarte ongizatea:** Auzolana
- 17. **Jubilatuak**
- 18. **Gazte asanblada:** IV. Herri Eguna
- 19. **Kale inkesta:** Denboraren bankua
- 20-21. **Ibilbidea:** Idiazabal-Gurutzetako ermita-Idiazabal
- 22. **Informatika:** Itsasondoko WIFI zerbitzua
- 23-25. **Hemeroteka**
- 26. **Lorezaintza eta errejeta**
- 27. **Liburuaren txokoa / euskararen atala**
- 28. **Oharrak. Kultur agenda**

Doinuak:

Aizak bi mutil mainontzi

*Goazen lehenago Kontzejura,
udaletxe zahar buira...
aldatuko da gaurko berriak
daraman itsura,
Nautiko ere beldu da
mende erdiko puntura,
oroitzapenen argazkiak zaharrak
eskutik eskura (bis).*

*Itsasondoko faunari
beginatz Aranzadi
gure ingurua ezagutzera
goaz adi-adi,
ulermen bide ugari
wifi sarean igeri
abots gabeko mundua eskainiz
batak bestari (bis).*

*Uda sarrenan San Juan,
Andramari abuztuan,
Santakruzetan ontioen bila
Urkina ez juan,
herriko egun prestuan
garagardoa eskuan,
sagar erreak intxaurarekin
merienda orduan (bis).*

Udaleko berriak

Udaletxeko berriak

Udal erabakiak

- 2015erako Itsasondoko jai egun ofiziala izendatu da. Irailaren 18a izango da.
- Udalak tasen ordainketan laguntza emateko onartutako araudiaren arabera, jasotako bi eskari onartu dira.
- Teknologia berriak atalean, Aldundiari udal elkarteak sarearen bidez konektatzeko programarako diru-laguntza eskatu zitzaion, eta planteatutako lanak amaitu dira.
- Obra txikiak egiteko jasotako baimenak onartu dira; guztira bi izan dira.
- Obra handiak atalean eskaera bat izan da eta onartu egin da.
- Obrak egiteko hiru espediente baimendu dira.
- Arbel-Aitz elkarteari Garagardo festa egiteko baimena eman zaio.
- Itsasondoko gazteei Herri eguna festa ospatzeko baimena eman zaie.
- Euskara ikasten aritu diren hiru herri-tarren eskariak aztertu eta erabaki dira.
- 2014ko 2. hiruhilabeteko ur errolda eta aparkamenduko 1. seihiilabeteko errolda onartu eta kobrantzan jarri dira.
- Liztor beltzaren hiru kabi antzeman ziren herrian, eta horiek kentzeko lanak burutu dira.
- Herri Eskolako eta haurtzaindegiko garbiketa berezia egiteko pertsona bat kontratatu da abuztuan, jardun erdiko kontratuarekin. Lan kontratuak 15 egun iraun ditu.



Diru-laguntzak

Azken hiruhilabetean honako diru-laguntzak tramitatu dira erakundeetan.

Eskatu direnak:

- Eusko Jaurlaritzari Ingurune Naturala eta Landa Eremuaren kontserbaziorako ekimenak gauzatzeko 2015-2016 programa egiteko.
- Eusko Jaurlaritzari 2014-2015 ikasurtean ITSASONDOKO HERRI ESKOLAKO AGENDA 21 programa proiektua gauzatzeko.

Lortutako laguntzak

- Haur eta Gazteentzako Jarduerak aurrera eramateko 7.520 euroko laguntza jaso da.
- Kultur ekitaldi eta jaialdiak antolatzeko 3.536 euroko laguntza jaso da.
- Itsasondo 2.0 aldizkaria egiteak sortzen dituen gastuak finantziatzeko 1.500 euro.
- Goimen Elkarteak 1.509,05 euroko laguntza eman du (%45a) Urkiako PF-GI 54 ibilbidea egokitzeke.
- San Juango saneamendu sarea egokitzeke 3.024,82 euroko laguntza lortu da. ■

Bizikleta elektrikoak

Agenda 21-aren inguruan, bizikletak garraiobide modura erabiltzea sustatzeko eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) dirulaguntzen eskaintzarekin bat etorritik, Itsasondoko udalak bizikleta elektrikoak erosten dituzten bizilagunei dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea erabaki du.

Dirulaguntza beste erakundeetatik lortu daitezkeen bateragarria izango da. (adibidez EEEren laguntza).



Laguntza jasotzeko baldintzak hauek izango dira:

18 urte beteta izatea.

Itsasondon erroldatuta egotea eta bertan bizitzea 2 urteko aintzitasunarekin.

Zergen ordainketan egunean egotea.

Aurkeztu beharreko agiriak:

Nortasun agiriaren kopia.

Bizikletaren erosketari buruzko faktura eta ordainketa agiriak.

Dirulaguntza jaso ahal izateko kontu korronte zenbakia.

Emango diren dirulaguntzak

Eskaera aurkeztu eta baldintzak betetzen dutenen artean 50 euroko dirulaguntza zozketatuko da.

Laguntzak 2014ko aurrekontuan ezarritako den partida bereziaren kontura emango dira.

Eskaera aurkezteko epea 2014ko azaroaren 15^a bitarte.

EEEren dirulaguntzen baldintzak EEEren webgunean kontsulta daitezke: <http://www.eve.es>

Urkiye haurreskola:

zerbitzu asistentzialetik askoz haratago, haurren bizitzako lehen urratsetan bide lagun

Kaixo denoi, Urkiye haurreskolatik! Iraila iritsi da, eta opor ederren ondoren, berriro ikasturte berria hasi dugu. Aurten bereziki ilusioz hasi dugu, aurreko urtean burutu ziren "Haurren herria" sortzeko topaketak fruituak ematen hasi direlako. Gure aldetik, aurten, Urkiye eskolarekin harremana sakondu egingo dugu eta elkarlanean hasiko gara Itsasondoko haurrek 0-12 urte bitarteko hezkuntza herrian bertan eskuragarri egoteko; modu hezitzaile, dibertigarri eta funtzional batean.

Gu oso pozik gaude haurreskolaren eta eskolaren arteko hezteko modua hurbiltzen ari delako Itsasondon, eta haurrek jarraipen bat izan dezaketelako haurreskolatik ateratzen direnean. Haurreskolako helburuak izan dira aspalditik, autonomia eta afektibitatea lantzea, haurraren aurreneko urteetan oinarrikoak direlako garapen osasuntsua izateko etorkizunean. Haurreskolan proiektu pedagogiko bat lantzen da, eta arlo hauek lantzen dira tartean. Orain, eskolarekin konpartitu dezakegu hau, haurraren heziketan hausketarik ez izateko. Itsasondoko haurrentzako opari bat, benetan!

Bestalde, ildo beretik jarraituz, haurreskolan egiten dugun lana aldarrikatu nahiko genuke, Haurreskola ez dela zerbitzu asistentzial bat soilik. Zerbitzu asistentzial batean ez dira afektibitatea eta autonomia bezalako arloak lantzen; esaterako, afektibitate mailan, binkulua eta haurraren kontentzioa lantzen ditugu, haurra gelan seguru sentitu dadin eta bere garapen prozesuan aurrerapausoak eman ditzan. Arlo hauek landuko ez bagenitu eta gure lana asistentziala bakarrik izango balitz, haurrak gabezi batzuk izango lituzke fisikoki, psikologikoki eta emozionalki. Haurrak haurreskolan estres handia biziko luke erreferente hori gabe eta segurtasunik sentitu gabe. Autonomia mailan, bere buruarekin konfidantza izatea lantzen dugu, eta bere ekintzen arduradun izatea. Eta fisikoak ere badu bere garrantzia; mugimendua eta gorputza landuz, mugimendu askea izan eta bere gorputza maitatu dezan.

Gaur egun, umeek ordu asko pasatzen dituzte etxetik kanpo, eta aipatutako arloak landu ezean, gabezia ugari sor daitezke bai psikologikoki bai fisikoki, eta horiek arazo bihur daitezke etorkizunean. Horregatik, guk, haurreskola bezala, gai honen inguruan lanketa handia egin dugu eta egiten segitzen dugu, eta garbi ikusi dugu gure bidea zein den haurraren onena lortzeko. Hori da Urkiye haurreskolak erakutsi nahi duena; eta berriz ere aldarrikatu nahi dugu ez dela zerbitzu asistentzial bat soilik.

Aurtengo ikasturtea lau haurrekin hasi dugu, eta laster bosgarrena etorriko zaigu. Gure indarrik handienak jarriko ditugu haur hauen bizitzako lehen urrats honetan, eta pixkanaka beraien bizitzako proiektuan lagungarri izango gara rela sinisten dugu. Beraz, ongi etorri denei! ■



Haurren ehun hizkuntzak

Ehun zenbakia ere agerian da
Haurra ehun da.

Haurrak ehun hizkuntza ditu
Ehun esku
Ehun pentsamendu
Pentsatzeko ehun modu
Ehun jolasteko
Ehun hitz egiteko.

Beti ehun,

Entzuteko
harritzeko
maitatzeko
Ehun arrazoi abesteko
Ehun ulertzeko
Amesteko ehun mundu
Ehun mundu asmatzeko.

Haurrak ehun hizkuntza ditu
(ehun, ehun eta ehun gehiago)
Baina laurogeita hemeretzi lapurtzen zaizkio.

Eskolak eta kulturak
gorputzetik banatzen diote burua
hau esanez...

Eskurik gabe, pentsatu
Bururik gabe, ekin
hitz egin gabe, entzun
poztasunik gabe, ulertu
eta data zehatzetan,
harritu eta maitatu
mundua deskubritu

baina ehunetik laurogeita hemeretzi
lapurtzen dizkiote

gaineratuz...

lana eta jolasa
errealitatea eta fantasia
zientzia eta imaginazioa
zerua eta lurra
arrazonamendua eta ametsa

ez doazela batera

nabarmenduz...

Ehun?

Eta haurrak:

Bai, ehun.


(Loris Malaguzzi 1920-1994)
(Irakaslea, eta gure garaiko
pedagogorik esanguratsuenetakoa)

Tonnuchi Donostira etorri zenean,
“Haurren ehun hizkuntzei”
buruz aritu zen, bere lagunmina
izan zenari, Loris Malaguzziri, aipamena
eginez.

Guk testua bilatu eta itzuli egin dugu
esanahia kontuan hartuta... Ea gustuko
duzen!



Tonnuchi Donostian



Ikasturtea martxan

Hemen dugu ikasturte berria ate joka. Uda ederra pasa eta indarrak hartuta, hemen gara berriro lanerako prest. Oraingo ale honetan, udako ekintzen berri eta ikasturte berrira begira ditugun asmoen berri emango dizuegu.

Uda plana 2014

Urtero bezala, herriko 11-17 urte bitarteko nerabe-entzat hainbat ekintza antolatu ziren uztailen zehar. Honako ekintza hauek antolatu eta egin ditugu:

- Ongizatek antolatu zuen pelikula emanaldia eta otarteko jana.
- Txomin Arana: hitzaldia antolatu.
- Eskulanak.
- Altxorraren bila herrian zehar.
- Bazkaria eta Olaberriko karretara irteera.
- Hernaniko igerilekuetara irteera.
- Argazki erakusketa eta ur jolasak.

Hemen dituzue uztailen atera ziren hainbat argazki. Eta ikasturte honetan...

Gaztelekuak irail hasieran ireki zituen ateak, eta festetako ekintzak antolatzen eta gauzatzen ibili os- tean, hemendik aurrera, ostiraletan elkartuko gara, betiko moduan, gaztelekuan, ongi pasatzeko, lagun artean egoteko eta ikasturtean zehar ekintzak anto- latu eta aurrera eramateko. Oraindik ez baduzu gaz- telekua ezagutzen etorri zaitezke gurekin!

Haurren Herria

Haurren herria lan taldea udako oporren ostean martxan jarri da. Ibilbide motza dugu, baina joan zen ikasturtea oso emankorra izan zen. Haurren Herria lan taldea Haur eskolako hezitzaileek, eskolako ira- kasleek, guraso elkarteko kideek eta udaletxeko ki- deek osatzen dute. Helburua da, haurra ardatz hartuta, txikitatik herriak eskaintzen dituen zerbitzu, baliabide eta eskaintza jabetzea, horiek ikusgarri eginez eta horiei balioa emanaz, bai herri barruan bai kanporantz.

Hona hemen, Haurren Herria lan taldeak orain arte eginiko lanak:

- Lan taldea osatu eta hilean behin elkartu aman- komunean egitasmo bat aurrera eramateko.
- Haur eskolari, eskolari eta gaztelekuari izena jar- tzeko prozesua aurrera eraman. Bertan, herriko eragileek parte hartu zuten.
- Haur eskolaren, eskolaren, ludotekaren eta gaz- telekuaren logoa aukeratzeko prozesua aurrera eraman. Horretarako, haurrak izan ziren protago- nistak. Prozesua nola izan zen ikusteko, dena bideo batean grabatuta dago.
- Lehiaketa batean parte hartu.
- Eskuorriak herritar guztientzat, gure zerbitzuen berri emanez, herrian ibiltzen ez diren herritarrei informazioa eman eta gonbidapena eginez.
- Eskolak bere urteroko bideoa egin zuen, eta he- rriko eragileen partehartzea bultzatu zuen. Abes- tia sortu eta grabatu zuen.
- Eskolako matrikula kanpainarako Guraso Elkar- teak bideoa egin zuen.





Altxorraren bila herrian zehar



Argazki erakusketa



Bazkaria



Eskulanak



Haurren herriko lan taldea



Haurren herriko lan taldea

Zer lortu du lan talde honek?

- Denek sinesten duten egitasmo bat aurrera eramatea.
- Herriko haurrak ardatz hartuta, talde lana, elkar-lana. Herrira begirako egitasmoa irudikatzea.
- Profesional desberdinen arteko sare lana. Hezitzaile, irakasle, guraso eta teknikariak mahai baten inguruan jarri, norabidea markatu eta elkarrekin lan egitea.

Eta, ikasturte honetan zer?

Ekainean taldeak ebaluaketa saio bat egin zuen. Bertan, konturatu ginen herritarrek egitasmoa eta egiten ari garen lana ez dutela ezagutzen, edota askotan azaltzeko zailtasunak ditugula. Beraz, ikasturte honetan, egitasmoaren ikusgarritasuna lantzeko asmoa dugu; horretarako, baditugu lantxo batzuk egiteko. Horrez gain, hasieran finkatu genituen helburuak lortzeko lanean jarraituko dugu. ■

Itsasondoko ingurumen eta iraunkortasun diagnostikoa

Itsasondoko herriaren egoera zein den aztertu du berriki Laia enpresak, ingurumen eta iraunkortasun irizpideen arabera diagnosia osatuta, udalaren eskariz. Itsasondo Ekinez Egina partaidetza prozesuaren baitako ikerketa-txostena da, eta aurkeztu zituzten gaur egungo egoeraren adierazleak eta datuak, kultur gune berrian.

Berez, partaidetza prozesuaren oinarrian eta hasieran egon beharko zukeen diagnostikoa. «Lehenengo pausoa izan ohi da diagnostikoa egitea, gero hortik herritarren parte-hartze prozesu bat martxan jarri, eta handik ekintza plana osatzeko», azaldu du Laiako teknikari Zuberioa Jauregik.

Itsasondoko Udalak lantaldeak orain urtebete baino lehenagotik jarriak ditu abian. Diru kontuak tarteko, hasieran ez zen diagnosi hain sakona egin. «Elkarrizketa batzuk oinarri hartuta ekin zitzaion prozesuari, nolabait diagnosi oso simple bat eginda. Jarraitu du prozesuak, egin zen ekintza plana, eta Itsasondoko Udalak badarama urtebete lantaldeekin funtzionatzen», dio Jauregik.

Udalak diru laguntza bat lortu ondoren erabaki zuen azterketa sakonagoa egitea, eta horixe aurkeztu dute orain. «Agenda 21eko metodologia jarraituz egin da iraunkortasun diagnostikoa. Datu asko ematen dira, 80 bat orrialdetan. Gai edo arlo bakoitzean Itsasondo nola dagoen ikusteko azterketa da». Datu bilketa eta erakusketa da, eta, horrenbestez, ez du ekintza planik edo lan ildorik zehazten. Udalak gidatzen dituen lantaldeetan landuko dute urrats hori.

Lanean hasteko oinarri bat

Diagnostikoa «oinarri bat» da, ondoren lantaldeek ikus dezaten iraunkortasun ikuspegitik zertan hobetu beharko litzatekeen. «Itsasondoko ikusten da energia arloan lan asko dagoela egiteko, uraren arloan, bioaniztasunaren inguruan, mugikortasunean kotxearen erabilera dezentekoa da...», dio Jauregik. Gai batzuetan ari dira jada taldeak lanean.

Diagnostikoa zenbait datu

Lurraldea

- Lurralde plangintza. Udalerririk kokapen egokia. Artifizialdutako zorua %2,04. Etxebizitza dentsitate baxua (0,36 etxebizitza hektareako).
- Mugikortasuna. Herritarren %78,95ek kanpoan lan egin. Motorizazio tasa handia (0,71 ibilgailu biztanleko). Istripu tasa altua (32,84 mila biztanleko).
- Bioaniztasuna eta paisaia. Natur intereseko gu- neak: Murumendi, Izarraitz-Aralar lerroa.
- Baliabide naturalak
- Ura. Ur galeran hobetu: 2012an %22 (2009an %43,6).
- Hondakinak. Gutxiago sortzeko joera: 1,04 kilo biztanle eta eguneko (2012). Gaikako bilketa 2011n %39; 2013an %88. Industrian %44,6 soilik balorizatu
- Energia. 2011n sortzen zen berriztagarri guztia fotoboltaikoa (12,96 kWh/bizt/urte). Udalsarea 21eko udalen azpitik (174).
- Ingurumenaren kalitatea. Airearen kalitatea ona eta onargarria urteko egunen %99,2an.
- Arriskuen kudeaketa. Ez dago larrialdi planik udalerrian.
- Erosketa eta kontratazio berdea. Ez dago planik.
- Klima aldaketa. Ekimenik ez.

Diagnostikoa beste bi atal ere baditu: Komunikazioa, eta Garapen soziala eta ekonomikoa. ■



Gure inguruko fauna

Anfibioak eta narrastiak, ornodun ikusezinak

Zoologoen ibilbidea, ikerketei dagokienez, oso laburra izan da. Horregatik, Euskal Herrian ornodunen inguruko ezagutza maila oso murrizta dela esan liteke. Duela hiruzpalau hamarkadakoak dira argitalpen osoenak, eta geroztik, ikerketa lerro desberdinak zabaldu badira ere, Europako beste herrialde batzuekin alderatuz oso urruti geratzen gara. Ornodunen artean, talde ezezagunena herpetoak dira, anfibioak eta narrastiak barneratzen dituen taldea, hain zuzen ere. Gezurra badirudi ere, ornodun taldeen artean mehatxatuen da aldi berean ezezagunena. Mundu mailan anfibio eta narrasti espezieen laurden bat mehatxu egoera larrian dago. Ezjakintasun horrek zuzenean eragiten die, izan ere ezagutzen ez dena, ez baita babesten.

Anfibioak lurra aurrenekoz kolonizatu zuten ornodunak izan arren, bide horretan "zigor edo penitentzia" bat jaso zuten: urarekiko menpekotasuna. Espezie gutxi batzuk salbu, gure basoetan topa daitekeen arrabio arrunta kasu, anfibio espezie gehienek ur-guneak behar izaten dituzte ugaltzeko, bertan errute edo enbrioiak ezarri eta bizi zikloa osatzeko. Ezaugarri honek are zaurgarriago bilakatzen ditu; izan ere, bi inguruneekiko menpekotasunak bikoiztu egiten du espezieen mehatxu egoera. Bi inguruneetan zaurgarriena ingurune urtarra da. Azken mendearen putzu, urmael, aska edo aintzira asko eta asko lehortu edota anadeatu egin dira, eta bertan bizi ziren hainbat eta hainbat espezie desagertu egin dira, edo mehatxu egoera larrian geratu dira. Espezie hauen egoera hobetze bidean, azken hamarkadan putzu eta hezegune asko berreskuratu dira. Itsasoadon, adibidez, duela urte batzuk loiako putzua egokitu zen, eta inguruko anfibio eta ornogabe urtarrek esker onez hartu dute ekintza (1. irudia).

Euskal Autonomia Erkidegoko anfibioen inguruko informazioa duen argitalpen bakarra, 1985ko Araba, Bizkaia eta

Gipuzkoako Ornodun Kontinentalen Atlasa, oso zaharkituta geratu bada ere, udalerrri mailan anfibio espezieen zerrenda lortzerako orduan iturri baliagarri bakar hau erabili ahal izan dugu. Argitalpeneko emaitzak aintzat hartuz, Itsasoadon eta inguruko lurretan zazpi anfibio espezie daudela baieztatzen da: bi anfibio isatsdun (uhandre palmatua eta uhandre marmolairea) eta bost anfibio isatsgabe (apo arrunta, txantxiku arrunta, baso igel gorria, ur-igel arrunta eta iparraldeko zuhaitz igela). Tamaiez, datu hauetako batzuk 80. hamarkadan bildu ziren, eta egun espezie hauetako batzuen presentzia Itsasoadon eta Goierri aldean zalantzakoa da, adibidez, iparraldeko zuhaitz igela eta uhandre marmolairea ez dira azken urteotan topatu. Aldiz, zerrendan ez dagoen espezie baten presentzia ziurtzat eman liteke, arrabio arrunta oso ohiko espeziea baita Goierri aldeko basoetan (2. irudia).

Narrastiak dira ornodun talde ezezagunena. Ez dira ikus errazak, oso ondo kamuflatzen baitira ingurunean. Era berean, bizidun oso iheskorak dira eta nekez topa zaitezke espezie hauetako batzuekin. Oskol gogorreko arrautza amniotikoaren bidez, urarekiko menpekotasuna galdu zuten narrastiek, ostera bizkar gainean fama txarraren zama eraman behar izan dute; gauzak horrela, beste bizidunek jasaten ez duten mehatxua pairatu behar izan dute: jazarpen zuzena, gehienbat suge eta antzerako bizidunek. Hezkuntza eta sentsibilizazio kanpainak martxan jarri behar izan ditugu azken urteetan, bizidun hauek jasaten duten jazarpenaren atzean ezjakintasun eta uste oker askoren sinesmena baitago. Usteok gezurtatzeko bide egokiena informazio zehatzagoa ematea da. Eta lan honetan dihardugu azken urteotan.



Duela urte batzuk egokitzapen lanak jasan dituen loiako putzua.



Errekasto batean topatutako arrabio arrunta.




Bide ertzean topatutako suge gorbata duna.

Anfibio espezieen zerrenda zaharkituta geratu bada, zer esan narrasti espezieenaz. Oso ikerketa lan gutxi egin dira narrastiekin. Horregatik, narrastien kontserbazio egoeraren inguruan ezer gutxi dakigu. Harritzekoa da, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Espezie Mehatxatuen Zerrendako bi maila gorenetan (Galzorian eta Kaltebera), narrasti lurtarrik egon ez izana. Etorkizunera begira, narrastien inguruko ikerketak martxan jarri beharko dira, zenbait espezie egoera latzean dauden susmoa dugu eta. 1985eko atlasa oinarri gisa erabiliz, Itsasoadon eta inguruko eremuetan zortzi narrasti espezie zeudela adierazten zen, besteak beste zirauna (hankarik gabeko muskerra), bi sugandila espezie (horma sugandila eta sugandila arrea), musker bat (muskur berdea) eta lau suge espezie: suge biperakara, suge gorbata duna (3. irudia), Eskulapio sugea eta pozoitsua den espezie bakarra, sugedorri kantauriarra. ■



urteurrena Nautikok

Nautiko taberna-jatetxea



Horrelako data seinalatuan, bertako M^a Milagros Otegi eta alaba Mila Izuzkizarekin edukitako elkarrizketa mamitsua azalduko dizuegu. 50 urte hauetan izandako gorabehera ugari aipatu dizkigute, eta baita pasarte interesgarriak ere.

Nolatan sortu zen Nautiko?

Pedro Iuzkizak (Milagrosen senarra eta Milaren aita) askotan kontatzen zuen, bere gurasoek "Latiñe" zaharra taberna zeukatela 1930. urte ingurutik, eta bere familiako guztiak txikitatik taberna munduko giroan haziak izan zirela; eta "Latiñe" ixtearekin batera, 1964. urtean ireki zen Nautiko taberna.

Pedroren familia nork osatzen zuen?

"Latiñe"n familia guztia ibiltzen zen lanean, baina ondoren, Pedroren senideek beste bide batzuk hartu zituzten eta Pedrok jarraitu zuen aurrera.

Non zegoen "Latiñe" taberna?

Orain mediku etxea ondoan dagoen errotanda inguruan kokatuko litzateke. Erakuntza haren alde batera "Konsejua" zegoen eta beste aldera "Latiñe".

Beraz, Pedro bizitza osoan tabernari ibili zen?

Ez, Pedro urte batzuetan arotz lanetan ibili zen Sarasolaren enpresan. Gainera, jatetxeko jantoki berri guztia egurrezkoa da, eta Pedro berak egindakoa da, bere lan orduetatik kanpo.

Nondik zetorkion arotz lanbidea?

Hamalau urterekin, bere aitarekin lanbidea ikasi zuen. Aita ere arotza zuen, barrikak egiten aritzen zen.

Zergatik erabaki zuen lanbidez aldatzea?

Sarasolarekin urte batzuk egin zituen, eta ondoren, tabernari lanari buru belarri ekin zion. Ostalaritza etorkizun hobea ikusten zuen, nonbait.

Noiz ireki zen Nautiko taberna?

1964ko abuztuaren 14an; eta ordurako "Latiñe" zaharra itxia zegoen. Hasiera hartan, jantoki txikia eta tabernako barra zeuzkan; jantoki handia beranduago hasi zen egiten Pedro, bere kontura. Jantoki berria eraikuntzatik kanpoaldera gelditzen da, errekaldera, eta taberna zabalteko modurik egokiena zela pentsatu zuten.

Eta zu, Maritxu, nola iritsi zinen Nautikora?

Nik M^a Milagros dut izena, baina jendeak Maritxu edo Mariatxo deitzen dit. Itsasondarra eta hamaika senideko familia batekoa naiz.



Milagros eta Mila alaba jantokia

Nautikon hasi aurretik, josten aritu nintzen hamalau urtetik hamazortzira. Orduan gauza handia izaten zen etxerako arropa egiten jakitea.


1965eko urtarrilaren 15ean, Nautikon zerbitzari bat behar zutela eta hoguei urterekin iritsi nintzen bertara. Pedrokekin hasi aurretik urte batzuk pasa ziren; pentsatu berarekin 1974an ezkondu nintzela.

Hasieran, bi-hiru neska ibiltzen ginen Pedrori laguntzen; neska gehienak familiakoak izaten ziren.

Nautikoren lehenengo urteak nola-koak izan ziren?

Garai hartan Itsasondotik N-1 errepidea pasatzen zen, eta kamioilari, turista... asko geratzen zen eguerdietan, eta egunean zehar ere bai. Uda partean kanpotar ugari gelditzen zen, Frantziatik Marokora edo Portugalera zihoan jendea edo bueltan zetorrena. Gainera, orduko kotxeak zaharrak ziren, eta gainean etxe erdia eramaten zuten. Hauek pasaeran geratu egiten ziren. Milan amonak esaten omen zuen: "Hemen datozte gaixo hauek, ene!". Kotxe baten barrutik jende mordoak ateratzen zen (ez orain bezala) eta edozein bazterretan lo egiten zuten. Hauek jatera etortzen ziren, nahiz eta bi pertsonen otorduarekin sei pertsonek jan. Atzerritar hauekin lan asko egiten zen udan.

Gaur egun, jendea lo egitera geratzen da, baina orduan kotxe barruan edo kanpoan lo egiten zuten.



Pedro urte batzuetan arotz lanetan ibili zen Sarasolaren enpresan. Gainera, jatetxeko jantoki berri guztia egurrezkoa da, eta Pedro berak egindakoa da.

Horrela, nahiz eta bazkaltzen aritu, edozein ordutan kamioilariaren bat azaltzen zen eta Pedrok altxatu, txuleta bat moztu eta berak zerbitzatzen zion. Pedrok ez zekien ezezkorik esaten, eta gu ere saiatu gara era berean jarraitzen.

Eta bestelako bezerorik?

Bestelako jendea ere asko etortzen zen. Garai hartan taxilari asko ibiltzen zen. Orduan lana egun guztian izaten genuen, ez bakarrik eguerdietan. Garai hartan, itsasoko portuan ibiltzen ziren kamioilari ugari gelditzen ziren eta hauek ez zuten ordu zehatzik izaten. Horrela, nahiz eta bazkaltzen aritu, edozein ordutan kamioilariaren bat azaltzen zen eta Pedrok altxatu, txuleta bat moztu eta berak zerbitzatzen zion. Pedrok ez zekien ezezikorik esaten, eta gu ere saiatu gara era berean jarraitzen. Ezezaguna bada, hainbestean, baina betiko bezeroa bada, ezin diozu ezezikorik esan.

Udaran lan asko eta urtean zehar ere bai.

Herriko festetan?

Garai hartan herriko festetan (abuztuko-etan) izugarritzko jendetza izaten zen, kaleetan musika eta alde guztietatik jendea ibiltzen zen.

Orain alde guztietan festa izaten da, baina garai hartan ez zen hainbesteko festarik izaten, eta Itsasondoko festek ospe ona zeukaten. Trenak ere jendez lepo etortzen ziren.

1964. urtean, Nautiko taberna ireki zenean, beste zenbait taberna ere bazuden: Kalea, Ibarre, Estanko eta Zapateri; eta Zelatzoko horretan ere beste taberna bat egon behar zen.

Nautiko izena nondik dator?

Aitak esaten zuen, jatetxea erreka ondoan zegoela eta errekan txalupa batzuk ibiltzen zirela, eta ideia hortik etorri zela. Garai batean, taberna, itsasontzi eta itsasoko gauzeekin apaindua zegoen (itsasoko sokak, lema, arraunak, aingura...). Oraindik mantentzen dira gauza batzuk.

Gehiena afari-meriendak zerbitzatzen zenituzten?

Oso ugariak izaten ziren, gehienetan txuletak zerbitzatzen ziren eta ondoren kafe kompletoa (gehietak kamioilariak izanik). Gaur egun menuetik kanpora gutxi zerbitzatzen da. Garai hartan, txuleta zintek sekulako abiada eramaten zuten.

Haragia nondik ekartzen zenuten?

Orduan txuleta hornitzailea Lasa harategia izaten zen, eta orain ere haragia leku beretik ekartzen dugu. Kalitate oneko haragia ibili du beti.

Bestelako jakiak?

Arraina, barazkiak... leku ezberdinetatik ekartzen genituen, baina bertakoak, eta edariak, kafea... Ugalde banatzailea eta Elozegi ardoetatik, bizitza osotik mantendu ditugu. Saiatu gara bertako, gertuko eta kalitateko produktuak ibiltzen. Gaur egun konpetentzia handia dago, izozkiak saltzen dizkizunak ere, nahi baduzu, haragia saltzen dizu, baina guk ideiak oso garbi izan ditugu. Bezero ona bazara, hornitzaileak saiatzaren dira bezeroa ondo zaintzen.

Ezkundu ondoren seme-alabak etorri ziren?

Lehenengo alaba, Mila, 1975ean jaio zen. Ondoren, Izaskun etorri zen, 1977an, eta azkenik Jon, 1984an.

Beraz, Jonek ez zituen 1983ko uholdeak ezagutu?

Ez, eta hobe horrela, jantoki berrian 1,50m igo baitzen ibaiko ura. Taberna osoa urak hartu zuen (sukaldea, jantoki zaharra...). Desastre izugarria izan zen eta dena aldatu beharra eduki genuen. Tabernako mostradorea ere aldatu genuen, lehen beste modu batera zen. Zerotik hasi behar izan genuen.

Abuztuaren 26a zen, eta goizeko 06:00etan ura errepidera iritsi zen eta berehala hura gurutzatu eta amonarengana joan ginen Beitiko etxera. Ura igo eta igo ari zen, gu 1. solairuan bizi ginen, eta zaila ematen zuen ura bertara iristea, baina badaezpada ateratzea erabaki genuen.

Beitiko barrutian (orain etxe berriak eginda daude) geratu ginen Nautiko ingurutik pasatzen ziren urei begira. Gogoratzen dut orduan ere bazirela maroak eta portugaldarrak, eta nola haietako bati kotxea eraman zion urak justu bertatik atera eta berehala. Izugarria izan zen.

Eta 1990eko harri erauntsia?

Jantoki berriko teilatua zintzilik geratu zitzaigun, eta gainera teilape guztia zu-

Abuztuaren 15ean egin zen urteurren ospakizunean



latuta utzi zuen. Jantoki barrua ere de-
zente puskatu zuen. Harri hark orain
pentsioa daukagun eraikuntzaren teila-
tua txikituta utzi zuen, eta orduan pen-
tsatu genuen zerbait berria egiteko
momentua zela, eta proiektu berria mar-
txan ipini genuen.

Izaskun Pentsioa?

Bai. Aitak eraikin hori erosita zeukan,
baina ez zitzaion erabilera berezirik ema-
ten. Aita beti zegoen negozioa nola ho-
betu pentsatzen, eta horrela sortu zen
pentsioa egiteko ideia. Hasieran solairu
batekin hasi ginen, eta ondo funtzionatu
zuela ikusita, beste bi solairu ireki geni-
tuen. Denera hogeita lau logela dauzka,
solairu bakoitzean zortzi.

1993ko ekainean ireki zen lehe-
nengo solairua eta 2000. urtean beste
bi solairuak.

Autobiak aldaketa handia suposatu zizuen?

Ez pentsa, baina momentu hartan te-
rreno berri batzuen bila ibili ginen. Au-
tobia ireki aurretik, aitak kezka handia
zeukan aldaketarekin, gehienbat N-1-
eko bezeroekin lan egiten genuelako.
Horrek pentsarazi zion beste leku berri
batera mugitu beharra zegoela, negozioa
bukatu zitekeen beldurrez. Baina, bertan
segitzea erabaki genuen, eta ondoren
eraikuntzako aktibitatea asko mugitzen
hasi zenez, bezero berriak egiten hasi
ginen. Agian, lehen bezalako kamioilari

kopururik ez zen etortzen, baina eguer-
dietan beti izaten genuen jendea.

Eta orain?

Gehienbat eraikuntzako langileak, fabri-
ketako mantenu lanak egiten dituztenak,
komertzialak... etortzen dira, baina as-
teburuetan kirolari taldeak (txirrindula-
riak, igerilariak...) eta turista jendea ere
etortzen da.

Aurten 50. urte?

Egia esan, ez da erraza horrelako nego-
zio bat hainbeste urtetan mantentzea.
Negozio berriak irekitzen dira, baina
asko berehala itxi egiten dira.

Etorkizunari begira, zein asmo dau- kazue?

Berdintsu segitzearekin gustura egongo
ginateke. Gaur egun gauzak dauden be-
zala, konpetentzi handia dago, eta ez da
erraza negozioak mantentzea.

Urte hauetan guztietan anekdotarik izan duzue?

Beasaingo festetan, koadrila pare bat
etorri eta jantoki guztia hankaz gora utzi
ziguten. Beraien artean tartak botatzen
hasi ziren eta kristona muntatu zuten,
komonak ere zerri eginda utzi zituzten.
Desastrea izan zen.

Horren ondoren, festetako koadrilarik
ez dugu hartzen, sortzen duten gastua
handiagoa baita irabazia baino. Salbues-
penen bat egin dugu, baina konfian-
tzazko koadrilekin.

Besterik?

Tarteka, bezeroren bat joan zaigu pen-
tsiotik ordaindu gabe, eta gainera jende
ezaguna; esan "ordainduko dizut", baina
gero arte.

Beste batean, bi lagunek ez zuten
pentsioko gelatik atera nahi izan, eta
ezta ordaindu ere. Azkenean, ertzainei
deitu beharra izan genuen.

Lapurretarik izan duzue?

Azken aldian ez hainbeste, baina urte
batean bederatzi aldiz lapurtu ziguten.

Urte batean, Santa Luzia bezperan, la-
purreta berezia egin ziguten. Lapur haiek
gose ziren, eta txipiroiak, oilaskoak, gaz-
tak... eraman zizkiguten.

Bazkaririk jendetsuena?

Seguruenik jubilatuen bazkariren bat
izango zen; urte askotan egin dugu eta
behin 110 lagun elkartu ziren. ■

**3 galderra
motz**

Zer duzue gustuko Itsasondon?

Hemen jaiotakoak gara, eta ez zaigu
iruditzen hau baino gauza horerik
dagoenik. Ez litzaiguke gustatuko
beste herri batera joatea.

Zer nabari duzue faltan Itsasondon?

Batzuetan giro gehiago egotea.

Inoiz izan duzuen amets bat?

Ez daukagu amets berezirik;
horrela segitzea.



Itsasondoko Kontzejua

Herriko zenbait bizilagunek gogoratu duten arren, beste hainbatek orain berritu berri den udaletxearen aurretik beste udaletxe bat izan zela ez dute jakingo, ezta ere non zegoen eta zergatik bota zuten. Jarraian, herritarrei Itsasondoko udaletxe zahararen historia pixka bat gogorarazi nahi diegu.

1960. urtean, Itsasondo zeharkatzen zuen N-1 errepide nagusia zabaltzeko obrak egiteko proiektua egin zen, eta obrarako lurrak desjabetzeko espedientearen tramitazioa burutu zen.

Terrenoaz gain, zenbait eraikuntza bota beharra izan zen, errepide barriaren trazatuak bete-betean harrapatzen zituelako; horien artean, Udaletxea (kontseju bezala ezagutzen zena), eta baita Latiñea etxea ere.


Udaletxearen eraikuntzan, udaletxeaz gain taberna, perratokia-errementaria eta etxebizitza bat zeuden.

Latiñea etxeak bi bloke zituen, guztira zortzi etxebizitza zeuden, eta behe solairuan beste taberna bat.

Udaletxearen eta Latiñea etxearen aurrealdean, herriko plaza zegoen. Ondoko irudietan ikusi daiteke orduko egoera.

Desjabetza espedientearen burutu ondoren, Latiñea etxean bizi ziren bizilagunentzako orain Nagusia 13a den etxebizitza eraiki zen. Taberna ere jarri zuten lehengo jabeek, Nautiko taberna, orain dela 50 urte inauguratu zena.

Udaletxe berria 1967. urtean amaitu zenez, obrak amaitu bitartean udaletxea sendagilearenean kokaturik egon zen. ■



Haur udalekuak; haurren gozagarri

Haur udalekuak 2014

Urtero bezala, Itturri txiki guraso elkarteak haur udalekuak antolatu ditu Itsasondoko haurrentzat. Aurten, 25 bat haurrek hartu dute parte, eta lau begiralez lagunduta, ekintza ugari egin dituzte: San Ferminak, hainbat jolas mota, Aramara eta Ordiziko azokara irteerak, igerilekura joan... Bai haurrak eta baita begiraleak ere gustura ibili dira. Hona hemen ekintzetako argazkiak.



Frontoiko barandilla estaltzen

Beste auzolan bat, 25. Aldizkarian adierazi genuen bezala, gure lehentasunen artean, erortzeko arriskua zegoen pilotalekuko barandilla estaltzea zen. Esan eta egin, behin behar genuen materiala lortu ondoren, data jarri genuen eta herrian zehar zabaldu genuen, herritarrek animatzeko, lan pixka bat eginez une polit bat pasatzeko. Aste erdiko arratsalde batean bildu ginen, ikusten genuelako ez zela denbora askoko lana izango eta halaxe iratsi zen, 3 ordurako sarea jarrita genuen erorketak sahiesteko.

Jaso ditugun iritziak, ongi geratu dela diote. Eta zuk zer diozu?

Hurrengo auzolana, Lurdes janaridenda-ren atzealdean dagoen haurrentzako parkean egin nahiko genuke. Erabilpenaren ondorioz, zoruko plaka akoltxatuak mugitu egin dira, eta mugitu ez daitezen aluminiozko marko bat ezartzea da gure asmoa, juntatako zikina presiozko uraz garbitu ondoren. Ikusten duzuen bezala, lanak ez du ahalegin berezirik eskatzen, beraz, zuen parte hartzea espero dugu. Guk gure aldetik materiala eta tresneria lortuko ditugu eta arratsalde eder bat pasatzera etor zaitezten gonbita luzatzen dizuegu. Auzolan hau egiteko data eta ordua zabalduko ditugu herrian zehar dauden pantailetan.





Herritarren arteko lankidetzaren aukera berriak

Gure tradizioan, oso barneratuta dugu auzolanak izan zuen garrantzia, eta zorionez, oraindik mantentzen da. Auzolanaren filosofia gureru ekarrita, herritarren arteko lankidetzaz suposatzen du. Gaur egun, lankidetzaz horren esparruak zein aukerak gero eta zabalagoak dira.

Azken aldian, teknologia berriei esker, oso modan jarri da lankidetzarako ekonomia deiturikoa, non herritarrek kontsumitzaileak diren baina ez jabeak, hau da, jabetza alde batera uzten da eta helburua zerbitzuak konpartitzea da. Ondorioz, zerbitzu eta Interneteko aplikazio ugari ditugu gaur egun herritarrekin konpartitzeko lan hori sustatzeko. Noski, kasu hauetan, herritarrek zentzu oso zabal batean ulertu behar ditugu.

Baina, teknologiaren menpe ez dauden beste ekimen asko jarri dira martxan. Adibide egokia da "denbora bankuaren" ekimena. Kasu honetan, "banku" bat sortzen da eta bertan herritarrek beren denbora eskaintzen dute beste pertsona batekin denbora trukatzeko. Horrela, ez da dirurik edo gauzarik trukatzeko. Aldiz, denbora trukatzeko, bata besteari laguntzeko. Herri handietan zein txikietan jarri dira abian horrelako ekimenak, eta jendeak denbora eskaera eta eskaintzak egiten ditu. Batzuek denbora eskatzen dute, txakurra ateratzeko, kotxea garbitzeko... eta bestalde, beste batzuek bere denbora eskaintzen dute horrelako zerbitzuak egiteko. Jakina, ez da erraza

hori dena koordinatzea; eta horretarako, teknologia berriei gain, irizpide eta arau oso zehatzak ipintzen dira, inolako iruzurrik izan ez dadin.

Azken finean, gure sistema neurri handi batean jabetzan oinarrituta dago, gauzen jabe gara eta horren inguruan antolatzen dira legeak eta harremanak. Baina, ez al dago gure esku hau aldatzea? Konpartitzearen alde egiteko adibideak baditugu, besteak beste, gure komunitatearen nortasuna indartzeko. Gogoeta txiki bat eginez gero, aurki konpartituko ginateke gure inguruan jende ugari dugula gaitasun bereziak dituen arlo zehatz batzuetarako. Zergatik ez konpartitu besteekin loreak nola zaintzen diren? Arin-arin bat nola dantzaten den? Internet-en nola mugitzen den? Edota gure inguruko mendiak ezagutzea? Aldi berean, etxean baditugu zenbait tresna oso gutxitan erabiltzen ditugunak. Zergatik ez beste bizilagunekin konpartitu nire zulagailu berezi hori? Edo ospitalera joateko bisitan nire kotxea besteekin elkarbanatu?.

Aukerarik ba al dago horrelako ezer Itsasondon egiteko? Prest gaude? Galdera horien erantzuna ez dago oso urruti. Guregan dago. ■

Jubilatu elkarteak

Gelditu ere egin gabe.

Ekainaren 19an Biasterira joan ginen

Plazatik goizeko 08:30ean irten ginen autobusez. 11:00etan Biasterira iritsi eta hamaiketako jateko mahaia prest genuen MARIXA UPATEGIAN. Tripa bete ondoren, bisita gidatua izan genuen bertako eliza eta indusketetan egiten ari ziren lan-keta ikusteko. Bazkaria MARIXA jate-txean egin genuen. Arratsaldean herria bisitatzeko tarte librea izan genuen eta 20:00ak alderako berriz bueltan ginen.



Alegiko txangoa



Abuztuko afaria



Salamankako egonaldia

Tolosara trenean, Alegira oinez paseotxoak eta bazkaria

Uztailareb 23an, 11:00etako trenean Tolosara joateko 15 lagun elkartu ginen. Bi-degorritik oinez Ruta 33-eraino joan ginen. Bertan, hamaiketako egin ondoren, ibilaldiarekin jarraitu genuen. Alegiko EIZMENDI jatetxean bapo bazkaldu eta nahi zuenak Itsasondora oinez eta nahi zuenak trenez egin genuen bueltako bidea.

Andra Mari bezperako afaria elkar-teen

Abuztuaren 14an, ohiturari eutsiz, 40 bat lagun elkartu ginen jubilatu elkartearen Andra Mari bezperako afaria egiteko. Afaria Xaxintane tabernak prestatu bazigun ere, elkarteko jendearen artean moldatu ginen banaketarako. Afafostean, musika eta lagunarteko solasaldiarekin, ederki amaitu genuen eguna.

Salamankara bost egunetarako

Ataundo Atsedentoki elkartekoek, Salamankan bost eguneko egonaldia egitera joateko gonbitea egin digute oraingoan, eta bi aldiz pentsatu gabe, elkarteko zenbait kidek izena eman dugu. Irailaren 7an autobusez atera eta bost eguneko Salamankako bazterrak ikusten ibili gara. Batean Ciudad San Rodrigora, bestean Sierra de Franzara, bost egunak airean pasa zaizkigu. Dena hitzez kontatu gabe hemen utziko dizkizuegu argazki batzuk, zuek ere gozatu dezazuen.

Jubilatu elkartearen oharra:

Jubilatu elkarteak antolatuta, urrian eta azaroan zenbait hitzaldi izango ditugu kulturgunean. Herriar guztiei zuzendutako hitzaldiak dira; beraz, elkartearen izenean, denok gonbidatuta zaudete:

- URRIAK 24: Ikas ezazu zure burua babesten, Kontsumo Arbitraia / 17:00etan kulturgunean
- AZAROAK 14: Energia-hornidurari buruz jakin behar duzuna / 17:00etan kulturgunean. ■



IV. Herri Eguna, denona, denontzat

Hilabete batzuk pasa diren arren, eta hauen artean uda luze bat, oraindik ez gara ahaztu ekainaren hamalauan ospatu genuen herri egunaz.

Egitarau oparoa izan genuen. Hasteko eta behin, kirol pixka bat egiteko aprobetxatu genuen, eta futbol partidak jokatu genituen. Talde dezentek parte hartu zuten, eta irabazleak Jubiletas taldekoak izan ziren. Beste behin ere, sasoian daudela erakutsi ziguten! Hauek plazan egun berean jarri zen ikurrina igotzeko saria izan zuten.

Ondoren, galdutako indarrak berriz ere berreskuratzekeo pintxo poteoa egin genuen, Arbelaitz elkartetik hasi, Nautiko eta Jubilatuen elkartetik pasa eta Xaxintanen bukatu genuen arte.

Afaltzeko garaia iritsi zen, eta Gaztetxera igo ginen denok tortillak prestatzera. Eguraldi ona egin zigun, eta elizako plazan jarri ginen, su eta zartagin artean, geroke afari goxo hura prestatzen. Epaimahaikideak aukeratu eta tortilla onena bilatzeari ekin zioten. Iaz bezala, Imanol Iturrizok ez irabazi zuen; zorionak!

Azkenik, eguna ondo bukatzeko, kontzertuak izan genituen Gaztetxean, goizaldera arte luzatu zirenak. Bizkaia aldetik, Haxotz taldekoak etorri ziren. Bi urtez jarraian izan ditugu, eta espero dugu hurrengoetan ere hemen izatea. Horiekin batera, Agresión verbal eta Darkrider taldeak izan genituen, eta gaua amaitzeko, Dj Josu. Azken hau ere hiru urtez izan dugu herri egunean, beti laguntzeko prest; beraz, eskerrik asko zuri ere, eta datorren urtean berriz etortzea espero dugu.

Herri Eguna lehenengo aldiz antolatu genuenean, zortzi lagun izan ginen, eta azkeneko honetan, laugarrenean, 15 bat izan gara. Beraz, espero dugu egun hau luzaroan izatea eta ez galtzea.

Hasierako helburua izan zen herri guztiak parte hartuko zuen ekimen bat sortzea; eta uste dugu, neurri batean behintzat, urtero lortu izan dugula, batzuetan besteetan baino arrakasta handiagoarekin.

Eskerrik asko eragile, koadrila eta norbanako guztioi, ekintzetan parte hartzeagatik eta eskainitako laguntzagatik. Datorren urtean elkar ikusiko dugulakoan gaude! ■



Denboraren bankua: herritarren arteko lankidetza eredu berriak

Herritar desberdinek denbora trukatzan dute beraien artean. Denbora trukatu, zertarako? Norberak izan ditzakeen, zaletasun, interes edo beharren arabera, bata besteari laguntzen die zerbait egiteko. "Nik interneten ibiltzen erakusten dizut eta zuk baratzeko lanak egiten laguntzen didazu". Honela, lankidetza eredu berriak sortzen dira.

1. Inoiz izan dezu esperientzia honen berri?

Esperientziaren bat ezagutzen duzu?

2. Itsasondon horrelako egitasmo bat egitea posible ikusten duzu?

3. Parte hartuko bazenu, zer egiteko prest egongo zinateke?

4. Zeren truke aldatuko zenuke zure denbora?



Mari Sol

1. Ezagutzen dut bai.
2. Bai.
3. Denetik egiteko prest egongo nintzateke.
4. Guztia.



Mariaje

1. Ez dut berri izan eta ez dut ezagutzen esperientziarik.
2. Bai.
3. Orainxe bertan ez zait bururatzen.
4. Kirolaren truke.



Danel

1. Ezagutzen dut baina ez dut praktikan jarri. Ezagutzen ditut esperientzia desberdinak.
2. Bai, posible dela uste dut.
3. Gauza asko eta desberdinak.
4. Denbora librearen truke.



Mertxe, Itsasondoko Gizarte langilea

1. Badakit zer den baina esperientzia zuzenik ez dut ezagutzen.
2. Borondatea baldin badago, zergatik ez?
3. Libururen bat irakurriko nioke norbaiti (berak ezin duen norbaiti).
4. Etxean egindako postre goxoren baten truke.



23. Ibilbidea

Idiazabal-Gurutzetako ermita-Idiazabal

Ibilbidea hasteko, elizaren atzeko aldetik, hilerria joateko bidetik gora egingo dugu. Lehenengo kilometroan aldapa handi samarra igo behar dugu, eta aldapa bukaeran, Gorrotxategi oialategiak ikusiko ditugu ezker-eskubi. Gurutzetako ermita aldera hartuko dugu. Ermitara iritsitakoan, beheraka doan hormigoizko pista hartuko dugu,

Aranburuko gaztandegira iritsi arte. Errepideari jarraituz, Toki-Eder etxearen ondoan, eskuinera egingo dugu. Bideari segika, ezkerrean Ampo dugula, San Inazio auzoraino iritsiko gara.

Errepide nagusiari jarraitu eta Idiazabalera bueltatuko gara. ■



Iraupena: Ordubete eta 15'

Ibilbidea:
Idiazabal-Gurutzetako
ermita: 25'
Ermita-San Inazio
auzoa: 25'
San Inazio auzoa-Idiazabal: 25'



01

Idiazabalgo enparantza



02

Idiazabal



03

Otazabal azpikoa



04

Gurutzeta basiliza



05

Albitsu



06

Ondramuño



07

Aranburu gaztaindegia



08

Toki eder



09

Olariaga



Maugia

10

Itsasondoko WIFI zerbitzua udaletxetik kanpo erabilgarri

Behean azaltzen dugun proiektuari esker, Itsasondoko herritarrok doako WIFI sare berria erabili ahal izango dugu herriko puntu jakin batzuetan.

Dagoeneko, udaletxearen eraikin berrian doako WIFI sarea erabiltzea posible bazen ere, oraingoan zerbitzu hori herriko puntu gehiagotara zabaltzen saiatu gara; adibidez, herriko plazara.

WIFI sare berriaren izena "itsasondo.net" da, eta erabili ahal izateko, udaletxean erabiltzailea eta pasahitza eskatu behar dira inprimaki berezi bat bete. Bertan azalduko zaizue sarea nola erabili eta ze murriztapen dituen. Beraz, baliabide berri hau erabili nahi baduzu, etor zaitez udaletxera zure pasahitza eskatzera! ■



Itsasondoko udalaren eraikinak haririk gabeko sare bidez elkarrekin konektatzeko aukera eskainiko du

Proiektu honen bidez, Itsasondoko honako eraikin publiko hauek IP sare bakarrean bildu dira:

- Udaletxea
- Gaztelekua
- Kaxintane taberna
- Jubilatuen egoitza
- Denda
- Anbulatorioa

Proiektu honek helburu hauek ditu:

- IP konektibotasuna ematea herriko hainbat puntutan dauden informazio panelei; horrela, horien informazioa eguneratu ahal izango da zentralizatutako puntu batetik.
- Udalak kontratatutak dituen Internet sarrerak (gaur egun bi konexio ADSL ditu) udalaren hainbat lokalen artean partekatzea, kostuak murrizteko.
- Interneterako sarrera zerbitzu publiko gisa eskaintzea, WIFI bidez.
- Udaleraiko erabilera pribatuko sare lokal bat sortzea.

1. IP konektibotasuna ematea informazio-pantailiei:

Udalak lau informazio-pantaila ditu instalatuta: udaletxean, tabernan, dendan eta mediku-etxean. Pantaila horiek interesgarriak izan daitezkeen hainbat informazioen berri ematen digute itsasondarroi, besteak beste, Udalak edo herriko hainbat taldek antolatutako ekimenak, edota informazio ofizialak. Lehen, pantailetan azaltzen zen informazioa eskuz tokian bertan kargatu behar izaten zen; sare berriarekin, berriz, udaletxeko langile batek egiten du, bere lanpostutik mugitu gabe.

IP konektibotasunak urrutiko sarrera zentralizatua eskaintzen du, pantailetako edukiak eguneratu eta kudeatzeko modua erraztuz eta hobetuz. Adibidez, urgentziazko albisteak momentuan jakinarazi ahal izango ditugu.

Bestalde, herriko eragileei, beraien kabuz eta erabiltzaile eta pasahitz bidez, beraien informazioa pantailetan argitaratzeko eta kudeatzeko aukera eskaini nahi zaie etorkizunean, parte-hartzea eta komunikazioa sustatuz.

Horrez gain, sareko konektibotasuna ezinbesteko baldintza da pantaila horiei etorkizunean elkar eragiteko aukera eskaini ahal izateko. Elkar-eragite hori baliagarria izango litzateke herritarrek udalarekin duten komunikazioa sustatzeko, hala nola, inkesta, kontsulta-formulario, kexa-kutxatila edo proposamenen bidez. Gainera, Udalaren informazioa nahieran kontsultatzeko aukera eskainiko luke, erabiltzailearen nahien arabera.

2. Udalak kontratatutako Internet konexioak lokal desberdinen artean partekatzea:

Udalak, gaur egun, bi konexio ADSL ditu udaletxean bertan lokalizatuta. Udalarenak diren beste lokal batzuetan Interneterako sarrera izatea beharrezkoa litzatekeela antzeman da, bereziki, gaztelekuan eta tabernan. Hala, logikoa da lehendik badauden baliabideak ahalik eta egokien erabiltzea da, egungo eta etorkizuneko Internet konexioen erabilera partekatuz eta zabaltuz, eta horrela, ADSL gehiago kontratatu beharra ekidinez.

3. Interneteko zerbitzu publikoa eskaintzea:

Udalaren titulartasunekoak diren eraikin hauetan, pantailen on line eguneraketa egiteaz gain, herritarrei Internet zerbitzua eskainiko diegu WIFI guneen bidez. Gainera, jubilatutako elkartean, informatika mundura eta Internetera gerturatzeko baliabideak ezartzeko lehenengo urratsa da.

4. Udaleraiko erabilera pribatuko tokiko sare bat sortzea:

Nahiz eta gaur egun Udalarenak diren hainbat lokalen artean tokiko lan-sare bat sortzea ez izan premia bat, etorkizunean behar hori sor daiteke (adibidez, Udaleko eta gaztelekuko zerbitzarien arteko zenbait datu partekatze), eta sortu berri dugun azpiegiturak zeregin hori erraztuko luke. ■

Andra Maria jaiak

Pasa berri dira aurtan ere abuztuko Andra Mari jaiak. 2014an, urtero bezala, goiz eresiaz, meza nagusiaren osteko hamaiketako eta toka-txapelketaz eta arratsaldeko sagardo-dastaketaz gozatzeko moduan izan gara. Aurreko gauetan, aldiz, jubilatutako Bizi Nahi elkartearen elkartu ziren, giro ederrean eta afari goxo bat tarteke, kontu eta algara, guztiok gustuko ditugun abuztuko jai hauei hasteko. Andra Mari egunean, ohi den moduan, goizean goiz hasi ziren herriko txistulariak hotsez Itsasondoko kaleak pixkanaka-pixkanaka esnatzen. Meza nagusiaren ostean, berriz, herriko sukaldariak prestatutako mokadu goxoak dastatzeko aukera izan genuen, eta sabelak bete ostean, toka-txapelketa, noski! Bi taldetan banaturik, gazte eta heldu, hor jardun genuen fitxak bota eta bota, burdina jo nahian, batzuk besteak baino punteria finagoz, baina tira... kar kar kar. Andra Mari eguna ospatzeko hain ohikoak diren familiarterko bazkariaren ostean, arratsaldean herriko plazan sagardo dastaketa izan genuen, eguna borobiltzeko. Euskal doinuen konpainian, oraingoan ere sake onez, gure zintzurak ederki asko busti genituen. Bejondeigula!



Itsasondoko II. Garagardo azoka

Aurten ere, iazkoari jarraituz, Arbel Aitz elkarteak, Itsasondoko Udalaren babesarekin, II. Garagardo Azoka antolatu du.

2014ko udako ekintza multzoari hasiera emanez, uztailaren 4an eta 5ean, ukondo goxoa dastatzeko eta garagardo freskoa edateko aukera paregabea izan genuen.

Uda ez zen batere txukun hasi; fresko eta euritan pasa genituen aurreneko egunak. Antolatzaileek zalantza handiak izan zituzten azoka eremua kokatzeko garaian, frontoi barruan jarri ala plazan jarri, jenderik etorriko ote zen. Baina, ostiral arratsalde-rako eguraldia portatu zen, atertu eta eguzkia ateratu zen. Horrela, azokari hasiera eman zitzaion, eta pixkanaka jendea inguratu eta mahaiak betetzen hasi ziren. Ostiralean itsasondotar ugari bertaratu bazen ere, larunbatean, bertako eta kanpotar asko etorri ziren, herri giroan afari mokadu bat egiteko asmoarekin.

Ekintza guztiz arrakastatsua izan zen, antolatzaileek adierazi dutenez, eta datorren urtean III. Azokari ekiteko asmoa azaldu dute.

Mila esker bertaratu zineten guztioi!



Pelikula emanaldia ongizate lan taldeak antolatuta

Ongizate lan taldetik ateratu da aurten martxan jarri den I. Pelikula Emanaldia ekimena. Bi pelikula eman dira guztira, biak ere Ongizateari gaitasun zerikusia dutenak, eta bietan izan du arrakasta deialdiak. Lehenengoa Arrugas pelikula izan zen eta 35 bat herritar gerturatu ziren, gazte, heldu nahiz adinekoak, denok ikusteko moduko pelikula baitzen. Bigarrena (Las Alas de la Vida) ez zen gutxiago izan: 30 bat lagun gerturatu ziren.

Pelikula amaieran, ikustera joan ziren guztien artean sariak zozketatu ziren. ZORIONAK zortedunei!

Ekimenak izan duen erantzun ona ikusirik, Ongizate lan taldetik pelikula gehiago ematen jarraitzeko asmoa dugula adierazi nahi dizuegu; beraz, adi deialdiei!



Urliko iraileko jaiak 2014

Irailak 13an, eman zitzaien jaiei hasiera. Suziriak jaurti eta trikiti saio baten ondoren afaria egin zen elkartean, jangela bete beterik zela. Ondoren erromeria LAJA eta MIKEL trikitilariekin.

Irailak 14 igandean, Gurutze Deunaren egunean, 10etako meza-
ren ondoren hamaiketako (azken urteotako jendetsuena) izan zen
elkartean, guztientzat lekua bilatzen zail egon zelarik. Ordurako
LAJA II eta NARBAIZA trikitilariak bertan zirelarik.

Eguerdian bazkaria egin genuen, LAJAI eta NARBAIZA trikitila-
riak bertan zirelarik giroa alaitzeko.

Arratsaldeko 6:30etako dena prest genuenean herri kirolak has-
teko, uste gabeko gonbidatu bat heldu zitzaigun, ordubete inguruko
eurijasa trumoi eta guzti. Hala ere 19:30 pasatxo zirela ekin zien ki-
rolariek beren lanei.

Eguraldia kontuan izanik, jende ugari aldegin zuen arren, plaza
ingurua beteta genuen Aizkoran Anjel Arrospe eta Joxe Ugarte-
buru, Joxe Mari Olsagasti eta Mikel Larrañaga ikusteko, eta aurren
lehenbizikoz, Xabier Aranburu "GUZTA" harri jasotzaile gaztea. Be-
raien arteko saio estu eta borrokatu bat eskaini ziguten.

Ondoren erromeria egin zen egun guztian zehar trikitia jotzen
aritu ziren LAJA II eta NARBAIZA trikitilariak

Azkenik esan, Saskiaren zozketa egin zela eta zorteduna Lurdes
Aranburu izan zela.



Aizkolariak plazan



Meza ondorenean

Sendabelar eta ukendu ikastaroa

Ekainaren 13an, 18:00etan elkartu ginen Ana
Mari Arza eta Mari Karmen Etxeberriak zu-
zendu zuten tailer honetan. Bertan, aurrez bildu-
tako sendabelarrekin, partaide guztiek hainbat
erremediotarako pomadak prestatzen ikasteko
aukera izan zuten Bizi Nahi elkartean. Ekimen ho-
netan 26 bat pertsonak parte hartu zuten. Guztiz
arrakastatsua izan zen, tokia ere txiki gelditu
baizten, eta oso pozik agertu ziren parte-hartzaile
guztiak.

Tailer honen harrera ona kontuan hartuta, da-
torren urtean ere sendabelarren beste erabilera
batzuk ikasteko tailerra antolatzea aurreikusten
dela adierazi du Lan Taldeak.



Ana Mari eta Mari Karmen



Tailerreko partaideak

(lorezaintza gomendioak)

Marrubia

Udako hilabeteetan marrubia da frutarik hedatuena.

Munduan 1.000 baratze-marrubi aldaera baino gehiago daude, landare honen hibridazio gaitasunaren ondorioz.

Fruta zapoetsu hau erraza da landatzeko, bai lurlean bai terraza edo balkoietako lorontzietan. Landatzeko, gomendagarriena da lorontzietan datozen aldaxkak erostea. Kontuan izan behar da, baita ere, datorren urtean landare bakoitzeko zenbait estoloi izango ditugula, landare berri bihurtuko direnak.

Marrubi-landarea 3-4 urtez landatu daiteke. Gero, landare berrak sartzea komeni da.

Labore baldintzak:

Lurzoru apur bat azidoa gustatzen zaio, eta drainatze onekoa, ura geratzea ekiditeko, horrek usteltzea eragingo bailuke. Marrubia landare exijentea da materia organikoari dagokionez; beraz, simaurra edo humusa botatzea komeni da landatzean. Loratzean, ongarri potasikoa gehitu dakiok, frutak sortzea erraztuko baitu. Barietatearen arabera, ekainaren amaieratik abuztua ondo aurera joan arte jaso daitezke bere fruituak.

Dagoeneko helduta daudenak kontuz batu. Marrubiak petalotxo eta guzti hartu; horrela, landarea gaixotzea saihestuko dugu, eta frutak denbora gehiago iraungo du.

Udan, garrantzitsua da sarri ureztatzea, baina lurra putzuz bete gabe.



Maixabel Garmendia
Izadia Loradenda. BEASAIN
943 88 14 40



(enrezeta)

Gazta tarta

Osagaiak (6 lagunentzako):

100g Mascarpone gazta.

50g Roquefort gazta.

½ kg Philadelphia.

175g azukre.

¼ l. esnegain.

Irin koilarakada ½ .

4 arrautza.

Prestakuntza:

Hasteko, Roquefort gazta mikrouhin batean urtuko dugu, esnegain apur baten laguntzarekin.

Behin Roquefort-a urtua dugula, bol batean osagai guztiak nahastuko ditugu, batidora elektriko batekin. Dena ongi nahastua dugunean, molde batean jarriko dugu. Komenigarria da moldea labeko paperez forratzea, erantsi ez dadin. Aurrez aurretik 180°C jarritako labean sartuko dugu egin arte (makiltxo batekin zartatu eta garbi ateratzen denean prest egongo da). Epeltzen utziko dugu jan baino lehen.



Jose Ignacia Duhau
Rubiorena jatetxea. BEASAIN
943 88 57 60

Liburuaren txokoa

Udan e bai!! kanpaina jarri zen abian liburutegitik. Udan liburutegia erabiltzeko ohitura gutxitu egiten dela eta, irakurzaletasuna areagotu nahian, kanpaina berezia jarri zen martxan. Apirilaren 2ko haur liburu eguna ospatzeko, separagailu lehia-keta ospatu zen, eta irabazleen lanekin hainbat ale jarri ziren eskuragarri.

Urriaren 23an Liburutegiaren nazioarteko eguna dela eta, ari gara ekintza bereziak prestatzen.

Euskararen atala

Euskara txukuntzen
Gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten ditugun hanka sartzeen zerbait adibide. Saia gaitezen zuzentzen!

Euskara "makarronikoa"	Euskara txukuna
PUES KLARO, zu bezala!	BADA, NOSKI, zu bezala!
KRISTON polita da	OSO polita da (adjetiboa) KRISTON parranda egin genuen (izena)
OSEAKE, ni ikustera etorri zarete!	ORDUAN (BERAZ), ni ikustera etorri zarete?


Errenta aitortpena euskaraz gora
Aurtengo errenta aitortpenaren datuen arabera, Itsasodon, euskaraz errenta aitortpena egiten dutenen kopurua goruntz doa azken urteetan. Hori erakusten duten datuak ondorengo taulan:

2013	Euskaraz 105	%Euskaraz 30,26	Guztira 347
2012	Euskaraz 98	%Euskaraz 20,9	Guztira 339
2011	Euskaraz 91	%Euskaraz 26,07	Guztira 349

Antzerkia



Azaroak
28an
Eskolako
aterpean
22:00etan



Oharrak



Beko kale urbanizatzeko proiektua

Irailaren 24an izan zen lehen bileraren ostean, hurrengo bilerari urriaren 15ean, 18:00etan, udaletxean izango dela gogorarazi nahi dizuegu. Bertan, irailean jaso ziren ekarpenen lanketa aurkeztuko da.

2015eko egutegiaren argazki lehiaketa

Gogoratu 2015. urteko egutegirako argazkiak aurkezteko epea urriaren 3ra arte izango dela. Oinarriak www.itsasondo.net webgunean dituzue eskuragarri.

Tonerrak botatzeko ontzia udaletxean

Etxeetako inprimagailuetako kartutxoak botatzeko ontzia dugu udaletxean. Mesedez, material toxikoa dela kontuan hartuta, beste hondakinekin ez nahasteko eskatu nahi dizuegu. Udaletxera ekarri eta bertan jasoko ditugu.

Eskulan ikastaroa

Hasiera eguna: 2014ko urriak 1.

Eguna: asteazkenak.

Ordutegia: 14:45etatik 16:45etara.

Lekua: Bizi-Nai jubilatutako elkartearen.

Irakaslea: Carmen Soto.

Matrikula: 15€ (klasean kobratuko da).

Kultur Agenda

URRIAK

3: Pintxo potea.

10: Pintxo potea.

17: Pintxo potea.

18: BTT travesia.

20: Lurralde Antolamenduko lan taldearen bilera / 19:00etan udaletxean.

21: Ongizate lan-taldearen bilera / 19:00etan udaletxean.

22: Herri Bizitza lan-taldearen bilera / 19:00etan udaletxean.

23: Liburutegien nazioarteko eguna.

24: Ikas ezazu zure burua babesten / 17:00etan kultur gunean / Jubilatutako elkarteak antolatuta.

29: Odol ematea udaletxean.

AZAROAK

14: Energia-hornidurari buruz jakin behar duzuna / 17:00etan kultur gunean / Jubilatutako elkarteak antolatuta.

14: Talo ikastaroa.

21: Kantu afaria.

21: Talo ikastaroa.

25: Tratu txarren aurkako eguna.

28: Antzerkia: Ondoko hilobiko tipoa.

29: Talo festa.

ABENDUAK

3: Euskararen eguna.

24: Olentzero.

Telefono interesgarriak



Udaletxea

943 881 170

- Gizarte Langilea
- Udal Arkitektoa
- Epaitegia

Haurreskola 943 164831

Herri Eskola 943 887704

Arbel-Aitz Elkartea 943 881339

Lurdes Janari Denda 943 885236

Arrastoa Botika 943 882148

Medikuarenean Txanda Hartzeko 943 007635

Kaxintane Taberna 606 756551

Nautiko Taberna / Izaskun Hotela 943 880012

Izaskun Ileapaindegia 943 160285

Sasietea 943 161555

Traste Zaharrak 943 161590

Taxi (Ordizia) 943 881486

itsasondo 2.0

Herriko Aldizkaria ((26. zk))) Iraila-Abendua 2014

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga
Ainhua Barandiaran
Alberto Ruiz
Aranzadi Elkartea
Axier Arbilla
Axier Bazaga
Belen Mendizabal
Danel Etxeberria
Ekaitz Arruti
Eskolako haurrak
Erkuden Mendizabal
Haurreskolako Hezitzaileak
Iker Usón
Iratxe Ibarra
Itsasondoko Gazte Taldea
Iturritxiki Guraso Elkartea
Jose Luis Aranburu
Kike Fernandez
Maite Lasa
Maixabel Garmendia
Mikel Mendizabal
Rosi Noguera
Unai Agirre
Zuberoa Jauregi

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herriatik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.net

Lege gordailua:
SS-297-2010

ISSN:
2171-5572



**GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
ABENDUAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN**